

Zientziarekin jolasean

MIT edo Massachusettseko Teknologia Institutuan lan egiten dutenen zeregina amets egitea da. 1985ean sortuzen zentru bitxi hau eta jadanik munduko ikerketa-gune garrantzitsuenetakoa da. Komunikazioaren eta Telematikaren enpresa handiak dira MITen bezero nagusiak, IBM,

MIT ikerketa-zentruan etorkizuneko belaunaldien beharrak aurrikusi eta aisialdirako edo ikerketarako erabiliko diren sistemak garatzen dituzte. MITen sortzen den oinarritzko teknologia industriak erabiliko duen kimua da. Nicholas Negroponte MITeko sortzaileak dienez, zientziaren zereginarena bere garaia gaintzetzeari da. *“Etorkizuneari zer beharko, horixe da gure ikerketa”*, dio Negropontek. Esaterako, **Daily Me** edo etorki-

gak. Makinek ezin dute pentsatu, baina, dirudienez, hobeto ulertzen gaituzte. Horrekin konformatu beharko, oraingoz.

Flasharen gora-beherak

“Flashik ez erabili”. Mundu osoko museoetan aurki daitekeen oharra aldatu egin beharko dute aurki. Londresko National Gallery Museoko ikerlariak baieztatu ahal izan dutenez, orain arte uste izan denaren kontra, flasharen argiak ez ditu margolarien lanak hondatzen. David Saunderr Museoko ikerlari-buruak iragarri duenez, galerietako argi artifizialak flasharen argiak baino kalte handiago egiten dio margoari. Orain arte esan izan denez, flasharen bapa-

teko ditzirak kalte handiak eragiten ditu margoan. Koloregabetzeaz gain, epe luzera aldaketak sortzen dituela uste izan da. Saunderrrek dioenez, ordea, flasharen ditzirak segundo gutxiko esposizioa sorrarazten du. Aitzitik, galerietako argi artifizialak etengabeko esposiziopean uzten ditu pinturak eta epe labur eta ertainera pinturaren ezaugarriak aldaraz ditzake. Argiaren indarra hartu ordez, esposizioaren iraupena irizpidez hartzea eskatu dute ikerlariak. Oraingoz aholku hutsa bada ere, Britainia Haundiko museoetan arau bihurtzea eskatu dute jadanik.

Londresko National Gallery Museoko ikerlariak baieztatu ahal izan dutenez, orain arte uste izan denaren kontra, flasharen argiak ez ditu margolarien lanak hondatzen.



MIT ikerketa-zentruan etorkizuneko belaunaldien beharrak aurrikusi eta aisialdirako edo ikerketarako erabiliko diren sistemak garatzen dituzte.

zuneko egunkariaren prototipoa prest omen dute jadanik. Egunkaria alde aurretik emandako aginduetan oinarritutako eredu da. Agindu horiek irakurlearen gustuak eta lehentasunak dira. Horretan oinarrituta, egunkariak berak egingo du aukeraketa: pantailan irakurlearen gustuko berriak azalduko dira, ez besterik. Munduko ikerketa-gunerik aurreratuenak bada ere, MITen ez dira oraindano gaintu adimen artifizialaren mu-

Apple, Nintendo, etab. Gaur egun, laborategian burutzen ari diren proiektuen % 75 enpresa pribatuek babesten dute. MIT laborategian amets egiten dute eta industriak ez du babesle izateko arazorik.





Parasitorik zaharrena

Museorako bitxi preziatua bilakatu da argazkiko fosila. Bonneko Unibertsitatean egiten ari diren ikerketen arabera, gaur egungo parasitoen familiako izakia da. Zenbait hegaztiren, zaldien eta krokodriloen gaixotasunak sortzen dituzten parasitoak aztertu dituzte bere-



Egindako ikerketak ontzat ematekotan, argazkikoa sekulan aurkituriko parasitorik zaharrena litzateke.


ziki eta argazkikoaren antza handia dutela ondorioztatu dute. Ezustetik handiena fosilaren adina aztertzerakoan hartu dute ikerlariak. Gutxienez, 500 milioi urte iragan dira parasito honek lehen animalia kutsatu zuenetik. Egindako ikerketak ontzat ematekotan, sekulan aurkituriko parasitorik zaharrena litzateke.

Zientziaren museoa begien aurrean

Parisko Zientzia eta Industriaren Hirian bideoteka informatizatua zabalduko dute aurten. Zientziari, teknologiari, naturari eta garapenari buruzko 4.000 pelikula baino gehiago eskaintzeko moduan prestatu da, hau da, 1.500 proiektzio-ordu bilduko dira bertan.

Museoan propio ezarritako 17 irakurgailu berezi erabiliko dira zerbitzu berri horretan. Berezkoak pertsonaiaren, dataren, gertakariaren edo izenburuaren arabera egin ahal izango du bere aukera. Agindua eman orduko, robot batek hartuko du aukeratutako pelikula eta disko-irakurgailuan ipiniko du. Besteak beste, landare baten garapenez, atomoaren egituraz edo Ilargira egin zen


Parisko Zientzia eta Industriaren Hirian bideoteka informatizatua zabalduko dute aurten. Zientziari, teknologiari, naturari eta garapenari buruzko 4.000 pelikula baino gehiago eskaintzeko moduan prestatu da.



lehen bidaiaren irudiaz gozatu ahal izango da.

Nondik datoz pergaminu zaharrak?

Zientzilariak ADN-probaz baliatuko dira Itsaso Hilan aurkitutako pergaminu jatorria argitu ahal izateko.



Da - kigunez, pergaminuaren zati solte batzuk baino ez dira orain arte aurkitu. Askoren iritziz, antzinako kristau-komunitateei buruzko datu baliogarri asko jakin ahal izango da Itsaso Hilan aurkitu-

Askoren iritziz, antzinako kristau-komunitateei buruzko datu baliogarri asko jakin ahal izango da Itsaso Hilan aurkitutako pergaminu jatorria argitzean.

tako pergaminu jatorria argitzean. Pergaminuak abere-larraz eginak daude eta horren ADN-proba egingo dute aurten Jerusalem eta Utah-ko Unibertsitateetako ikelariak. Zehazki, pergaminuaren eta garai berekoak omen diren fosil desberdinen ADN-probak egingo dituzte. Begiz jotako epeak betetzekotan, urtea amaitu baino lehen jakin ahal izango dugu noiz idatziak izan ziren pergaminuak eta, garrantzitsuago izan daitekeena, nongoak diren.

